

# Koiuntura di-da batean

2017ko urtarrila

## Aurkibidea

1. Afiliazioa
2. Langabezia erregistratua
3. Inflazioa
4. Konfiantza
5. Autonomia erkidegoak
6. Sentimendu ekonomikoa

Eranskina

### 1. Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkundeari eusten dio.

Emakumeek afiliatu guztien %47 dira dagoeneko.

### 2. Abenduan langabezia %9,2 gutxitu zen urte arteko tasan.

Azken bi urtean, ia 30.000 lagun gutxiago daude lanik gabe.

### 3. Prezioek gehikuntza nabarmena izan zuten urte amaieran.

KPIa osatzen duten talde guztiak garestitu ziren abenduan.

### 4. EAEko familien konfiantzak suspertzen jarraitzen du.

Hala ere, adierazleak oraindik ez du lortu eremu positiboan kokatzea.

### 5. EAE erkidego dinamikoenen artean egongo da 2016an eta 2017an.

Cepredek %3,3ko hazkundera aurreikusten du 2016rako eta %2,5, berriz, 2017rako.

### 6. Europar Batasuneko konfiantzak nabarmen egin du hoberantz.

Abenduan jasotakoa baino balio handiago bat aurkitzeko 2007ko urrira itzuli behar da.

EUSKO JAURLARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA  
SAILA  
Ekonomin eta Planifikazio Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA  
Dirección de Economía y Planificación

## GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

### Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkundeari eusten dio

#### Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira


Urte arteko aldakuntza tasa



2016ko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,9ko urte arteko gehikuntza jaso zuen eta kotizatzen dutenen kopurua ia 925.300 lagunetan kokatu du. Halako zenbakirik ez da 2011ko udatik ezagutu. Hori horrela, amaitu berri den urte osoko batez besteko gehikuntza 2007tik inoiz jaso den gorena da eta %2,0ra iritsi zen. Beraz, hiru urte jarraian hazkundeak bildu ditu. Afiliazioaren gorakada horretan, emakumeen bilakaerak garrantzia nabarmena izan zuen, zeren eta pasa den abenduan Gizarte Segurantzaren izena emanda zeuden emakumeen kopurua serie historiko osoko altuena baita, krisiaren aurrean jaso ziren balioen gainetik. Horri esker, une hauetan Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden guztietatik %47 emakumeak dira dagoeneko. Gizonen kopurua ere handitu zen abenduan, kasu horretan %1,8.


#### Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak

Urte arteko aldakuntza tasa




#### Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak


Urte arteko aldakuntza tasa



**Afiliazioa industrian**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Afiliazioa zerbitzuetan**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa sektore guztietan igo zen eta berriro ere industriak eta zerbitzuek erakutsi zuten bizitasun handiena, nahiz eta nolabaiteko moteltzea hautematen den bi arlo horietan. Hazkunde tasarik handiena bildu zuten adarren artean, kontsumoarekin eta turismoarekin harreman zuzena daudenak nabarmendu behar dira, hala nola merkataritza (%1,1) eta ostalaritza (%3,0), baina baita hezkuntza (%3,3) eta osasun arloko jarduerak (%3,4) ere. Azken horiei biztanleriaren zahartzea sortzen ari den eskari gero eta handiagoak egin die mesede. Aitzitik, finantza arloak (%-3,7) enplegua galtzen jarraitu zuen, bankuetan gauzatzen ari den langileria egokitzapenaren ondorioz.

#### Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak


|                                        | 2015eko abendua | 2016ko abendua | Aldakuntza    |
|----------------------------------------|-----------------|----------------|---------------|
| <b>AFILIAZIOA GUZTIRA</b>              | <b>907.964</b>  | <b>925.291</b> | <b>17.327</b> |
| Industria manufakturagileak            | 167.031         | 170.384        | 3.353         |
| Merkataritza                           | 137.358         | 138.854        | 1.496         |
| Osasun arloko jarduerak                | 88.091          | 91.275         | 3.184         |
| Hezkuntza                              | 64.125          | 66.298         | 2.173         |
| Ostalaritza                            | 61.537          | 63.268         | 1.731         |
| Administrazio jarduerak                | 61.404          | 63.237         | 1.833         |
| Eraikuntza                             | 52.437          | 52.780         | 343           |
| Lanbide jarduerak                      | 52.335          | 53.270         | 935           |
| Administrazio publikoa                 | 46.766          | 47.096         | 330           |
| Garraioa                               | 38.588          | 39.717         | 1.129         |
| Etxeko langileak                       | 30.816          | 31.121         | 305           |
| Bestelako zerbitzuak                   | 29.033          | 28.956         | -77           |
| Informazioa eta komunikazioa           | 20.579          | 21.391         | 812           |
| Finantza jarduerak                     | 19.512          | 18.716         | -796          |
| Jarduera artistikoak                   | 14.663          | 15.349         | 686           |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza | 11.729          | 11.854         | 125           |
| Ur horniketa                           | 5.657           | 5.672          | 15            |
| Higiezen jarduerak                     | 4.010           | 3.755          | -255          |
| Energia horniketa                      | 1.649           | 1.667          | 18            |
| Erauzketa industriak                   | 602             | 588            | -14           |
| Lurraldez kanpoko erakundeak           | 42              | 44             | 2             |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

## LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Abenduan langabezia %9,2 gutxitu zen urte arteko tasan

**Langabezia erregistratua guztira**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Lanbideko bulegoek abenduan jaso zuten langabeen kopurua %9,2 txikiagoa zen aurreko abenduko datuarekin alderatuta. Jaitsiera tasa hori oso hurbil dago 2015eko amaieratik erregistro horrek erakutsi duenarekin. Horren ondorioz, lagun erregistratuen guztizkoa 136.173 da gaur egun, hots, iazko hileko berean zegoena baino 13.844 gutxiago eta erkaketa 2014ko abenduarekin egiten bada, orain ia 30.000 langabe gutxiago daude. Urteko batez bestekoan, 2016an lortu den langabezia beherakada (%8,8) aurreko bi urteetakoa baino nabarmen handiagoa izan da (%2,1 2014an eta %6,7, berriz, 2015ean). Bi generoek parte hartu zuten langabeziaren zuzenketa horretan, baina murrizketa handiagoa izan zen gizonen artean (%11,2) emakumeen artean (%6,8) baino.

**Langabezia erregistratua. Emakumeak**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Langabezia erregistratua. Gizonak**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Langabezia erregistratua. Gazteak**  
Urte arteko aldakuntza tasak



**Langabezia erregistratua. Atzerritarak**  
Urte arteko aldakuntza tasak



2016ko amaieran, joera kontrajarriak hauteman ziren gazteen eta atzerritarren langabeziaren bilakaeran. Lehen kasuan, langabeziaren murrizketak bat-bateko gelditzea izan zuen eta %-15etik gorako tasak jasotzetik %-3,0ra igaro zen. Aitzitik, atzerritarren artean lehenago bizi zen aldakuntza tasa txikia bizkor handitu zen azken hilekoetan, bertoko biztanleriaren balioetara hurbilduz. Beste aldetik, jaitsiera zertxobait biziagoa izan zen Gipuzkoan (%-10,6), Araban (%-9,3) edo Bizkaian (%-8,6) baino. Jarduera sektoreka, beherakada ia guztia lehendik ere lan egin zuten lagunen kolektiboan gauzatu zen, lanik gabeko pertsonen kopuruak ia berdindu zuelako 2015eko abenduan zeukana. Jaitsiera handiena zerbitzuetan gertatu zen, lanpostu gehien sortzen duen sektorea baita.

### Langabeak

|                                                  | 2015eko abendua | 2016ko abendua | Aldakuntza     |
|--------------------------------------------------|-----------------|----------------|----------------|
| <b>LANGABEAK GUZTIRA</b>                         | <b>150.017</b>  | <b>136.173</b> | <b>-13.844</b> |
| <b>LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA</b>              |                 |                |                |
| Araba                                            | 24.391          | 22.131         | -2.260         |
| Bizkaia                                          | 84.291          | 77.077         | -7.214         |
| Gipuzkoa                                         | 41.335          | 36.965         | -4.370         |
| <b>SEXU ETA ADINAREN ARABERA</b>                 |                 |                |                |
| Gizonak                                          | 70.369          | 62.353         | -8.016         |
| Emakumeak                                        | 79.648          | 73.820         | -5.828         |
| 25 urtetik beherakoak                            | 8.436           | 8.182          | -254           |
| 25 urte baino gehiago dutenak                    | 141.581         | 127.991        | -13.590        |
| <b>EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA</b>              |                 |                |                |
| Lehen arloa                                      | 3.346           | 3.206          | -140           |
| Industria                                        | 20.179          | 17.313         | -2.866         |
| Erakuntza                                        | 15.163          | 12.411         | -2.752         |
| Zerbitzuak                                       | 95.781          | 87.792         | -7.989         |
| Lehenago lan egin dutenak                        | 134.469         | 120.722        | -13.747        |
| Lehenago lan egin ez dutenak                     | 15.548          | 15.451         | -97            |
| <b>ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARAK</b> |                 |                |                |
| Langabe atzerritarak                             | 23.563          | 21.539         | -2.024         |

## INFLAZIOA

## Prezioek gehikuntza nabarmena izan zuten urte amaieran

**KPI indize orokorra**  
Urte arteko aldakuntza tasa




Prezioek gorakada bizia izan zuten 2016ko amaieran eta abenduko urte artekoa %1,5ean kokatu zen, aurreko hilekoko emaitza zortzi hamarrenetan gaindituz. Hori horrela, urte osoko batez besteko inflazioak (%0,0) 2015eko tasa negatiboak atzean utzi zituen. Izan ere, urte hasieran, prezioen aldakuntza oso txikia izan zen, baina irailetik aurrera goranzko joera garbia hartu zuten.


**KPIaren banaketa**  
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

|                                 | 2014        | 2015        | 2016ko abendua | Ekarpena   |
|---------------------------------|-------------|-------------|----------------|------------|
| <b>Inflazio osoa (%100)</b>     | <b>-0,3</b> | <b>0,0</b>  | <b>1,5</b>     | <b>1,5</b> |
| <b>Azpiko inflazioa (%82,6)</b> | <b>0,7</b>  | <b>0,9</b>  | <b>1,0</b>     | <b>0,8</b> |
| - Elikagai landuak (%14,1)      | 1,1         | 0,9         | 0,0            | 0,0        |
| - Industria ondasunak (%26,6)   | 0,3         | 0,8         | 0,8            | 0,2        |
| - Zerbitzuak (%41,9)            | 0,8         | 1,1         | 1,5            | 0,6        |
| <b>Hondar inflazioa (%17,4)</b> | <b>-4,5</b> | <b>-4,2</b> | <b>3,9</b>     | <b>0,7</b> |
| - Landu gabeko janariak (%6,8)  | 1,9         | 2,6         | 2,2            | 0,2        |
| - Energia (%10,6)               | -8,4        | -8,2        | 5,1            | 0,5        |

**Azpiko inflazioa**  
Urte arteko aldakuntza tasak



**Hondar inflazioa**  
Urte arteko aldakuntza tasak



**Petrolio upelaren prezioa**

Dolarrak



Aipatu den inflazioaren gorakada hori energiaren garestitze biziaren ondorioa zuzena da, petrolioaren bila-kaerak eraginda. Lehengai horren salneurria balio minimotan kokatu zen 2016ko urtarrilean, baina une hauetan iazko udatik izan duen preziorik gorenean dago. Hori dela eta, erregaien salneurria tasa positiboe-tara itzuli da, 2015eko abenduan merkatu ziren bitartean. Petrolioaren garestitzeak eragin handia izaten du talde jakin batzuetan eta horiek izan ziren inflazioaren igoera bereziki behartu zutenak. Zehazkiago adierazita, garraioaren urte arteko tasa hiru puntu eta hiru hamarren igo zen (%1,3tik abenduko %4,6ra) hileko bakar batean eta etxebizitzarena, berriz, %-0,7tik %0,4ra. Hala eta guztiz ere, prezioen goranzko joera orokorra izan zen, zeren eta KPIa osatzen duten talde guztiek, salbuespenik gabe, urte arteko tasa positibotan amaitu zuten 2016 urtea.


**KPIaren talde nagusiak**  
 Urte arteko aldakuntza tasak

|                                       | Euskadi<br>Abendua | Espainia<br>Abendua | Euskadi. Urteko<br>batez bestea | Espainia. Urteko<br>batez bestea |
|---------------------------------------|--------------------|---------------------|---------------------------------|----------------------------------|
| <b>INDIZE OROKORRA</b>                | <b>1,5</b>         | <b>1,6</b>          | <b>0,0</b>                      | <b>-0,2</b>                      |
| Janariak eta alkoholik gabeko edariak | 0,7                | 0,8                 | 1,6                             | 1,4                              |
| Edari alkoholdunak eta tabakoa        | 0,8                | 0,9                 | 0,4                             | 0,5                              |
| Jantziak eta oinetakoak               | 0,9                | 0,9                 | 0,8                             | 0,6                              |
| Etxebizitza                           | 0,4                | 0,8                 | -4,1                            | -4,2                             |
| Etxeko tresneria                      | 0,8                | 0,0                 | 0,5                             | 0,2                              |
| Medikuntza                            | 0,7                | -0,1                | 1,0                             | -0,2                             |
| Garraioa                              | 4,6                | 4,7                 | -1,8                            | -2,0                             |
| Komunikazioak                         | 3,3                | 3,3                 | 2,6                             | 2,6                              |
| Aisia eta kultura                     | 0,9                | 0,5                 | -1,0                            | -1,0                             |
| Hezkuntza                             | 1,0                | 0,9                 | 0,6                             | 0,6                              |
| Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak     | 1,3                | 1,4                 | 1,0                             | 1,1                              |
| Bestelakoak                           | 1,8                | 1,9                 | 1,7                             | 1,6                              |

## KONTSUMITZAILEEN IRITZIAK


### EAEko familien konfiantzak suspertzen jarraitzen du

#### Familien konfiantza indizea




Laboral kutxak EAEko familien konfiantzaz argitaratzen duen informazioak hobekuntza neurritsua erakusten du, baina oraindik ez du lortu balio positibotan kokatzea. Hain zuzen ere, 2016ko laugarren hiruhilekoko datua -3 izan zen, bigarren hiruhilekoko berdinduz. Bi emaitza horiek serie historiko osoaren datu gorenak dira. Gorabeherekin bada ere, kontsumitzaileen igurikimenek etengabeko susperraldia erakusten dute. Goranzko joera horren atzean, ikuspegi baikorrago bat dago ekonomia orokorraz, etxeko ekonomiaz eta langabeziaren bilakaeraz, azken hori baita daturik altuena eskuratu duena. Urteko batez bestekoan neurtuta, 2016ko adierazleak puntu batean gainditu zuen 2015ekoa.

#### Ekonomia orokorra




#### Langabeziaren bilakaera




Iturria: Laboral kutxa.

## Familien ekonomia



## Aurrezteko ahalmena



Hauteskunde autonomikoen, Estatuko gobernua osatu izanak eta ekonomia jarduera suspertzen ari dela adierazten duten hainbat emaitzek lagundu dute ekonomia orokorrari buruzko igurikimenak zertxobait hobetzen. Beste aldetik, norberaren familiaren igurikimenean atalean, iazko azken hiruhilekoan serie osoko daturik gorena jaso zen. Baikortasuneko testuinguru berean kokatu dira langabeziari buruzko usteak, zazpi hiruhilekoz jarraian balio positibotan daudelako. Goranzko bilakaera orokor horretatik aldendu den osagai bakarra aurrezkoa da, balio ezkorretan murgilduta baitago oraindik.

Ingurune herrialde europarrekin alderatuta, begi bistakoa da EAEko egoera Eurogunekoa eta Europar Batasunekoa (bietako balioa -6 da) baino baikorragoa dela. Igurikimen ezkorrak dituzten herrialdeen artean, Frantzia, Italia eta Portugal nabarmendu dira. Esanguratsua da, berriz, Erresuma Batuan hauteman den okertzea EBtik irteteko erreferendumen emaitza ezagutu ondoren. Baikorren aldean, Herbehereak gailentzen dira, bertako kontsumitzaileen konfiantza sendo areagotu delako.

## FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA


|                  | 2015      | 2016      | 2015      |           |           |           | 2016      |           |           |           |
|------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
|                  |           |           | I         | II        | III       | IV        | I         | II        | III       | IV        |
| <b>EUSKADI</b>   | <b>-6</b> | <b>-5</b> | <b>-9</b> | <b>-4</b> | <b>-6</b> | <b>-4</b> | <b>-7</b> | <b>-3</b> | <b>-5</b> | <b>-3</b> |
| Eurogunea        | -6        | -7        | -6        | -5        | -7        | -6        | -8        | -8        | -5        | -6        |
| Europar Batasuna | -4        | -6        | -4        | -3        | -5        | -5        | -6        | -6        | -7        | -6        |
| Frantzia         | -17       | -14       | -18       | -17       | -17       | -14       | -15       | -14       | -14       | -13       |
| Alemania         | 0         | -4        | 1         | 3         | 0         | -4        | -6        | -3        | -3        | -2        |
| Erresuma Batua   | 3         | -3        | 4         | 4         | 2         | 2         | 2         | -1        | -6        | -5        |
| Italia           | -6        | -9        | -7        | -8        | -9        | -2        | -4        | -8        | -12       | -11       |
| Espainia         | 0         | -4        | -1        | 2         | -1        | 2         | -2        | -3        | -6        | -4        |
| Herbehereak      | 6         | 5         | 3         | 7         | 9         | 6         | 0         | 2         | 6         | 12        |
| Portugal         | -12       | -12       | -12       | -12       | -12       | -12       | -12       | -13       | -13       | -8        |

## AUTONOMIA ERKIDEGOEN AURREIKUSPENAK

### EAE erkidego dinamikoen artean egongo da 2016an eta 2017an

#### BPGaren bilakaera. 2016. urtea

Urte arteko aldakuntza tasak



Cepredek espainiar erkidegoentzat egiten duen maiztasun handiko eredua eguneratu berri du. Ereduek horrek erkidego guztien datuak aurreikustea eta modu homogeneo batean alderatzea ahalbidetzen du. Orobat, emaitza horiek bateragarriak dira Estatuko datuekin.

Azaroko adierazleen gaurkotzeak eta Espainiako kontabilitate nazionaleko hirugarren hiru hilekoko datuek %3,2an kokatu dute Estatu osoko hazkunde zenbatespena. Autonomia erkidegoka aztertuta, hazkundearen urkila bi muturretan kokatzen da. Batean Kantabria dago, 2016an %2,2 haziko dela aurreikusten baita. Bestean, Murtziak lortuko duen %3,6 dago. Zehazkiago, sei erkidego haziko dira Espainiako %3,2 baino gehiago, eta EAE haietako bat izango da, %3,3 eskuratuta.

#### Euskadiko BPGaren hazkundera

|      | Urtea | I   | II  | III | IV  | Urt | Ots | Mar | Api | Mai | Eka | Uzt | Abu | Ira | Urri | Aza | Ab  |
|------|-------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|------|-----|-----|
| 2014 | 1,3   | 0,3 | 0,9 | 1,7 | 2,3 | 0,0 | 0,3 | 0,5 | 0,7 | 0,9 | 1,1 | 1,4 | 1,7 | 1,9 | 2,1  | 2,3 | 2,5 |
| 2015 | 3,1   | 2,8 | 3,0 | 3,2 | 3,5 | 2,7 | 2,8 | 2,9 | 3,0 | 3,0 | 3,1 | 3,1 | 3,2 | 3,3 | 3,4  | 3,5 | 3,6 |
| 2016 | 3,3   | 3,6 | 3,6 | 3,2 | 2,7 | 3,6 | 3,6 | 3,6 | 3,6 | 3,6 | 3,6 | 3,5 | 3,3 | 3,0 | 2,9  | 2,7 | 2,6 |

Ilundutakoa aurreikuspena da. Ituttia: CEPREDE.


## BPG-AREN HAZKUNDEA

|      | Espainia | Andaluzia | Aragoi | Asturias | Balearrak | Kanariak | Kantabria | Gaztela eta Leon | Gaztela-Mantxa | Katalunia | Valentzia | Extremadura | Galizia | Madril | Murtzia | Nafarroa | Euskadi | Errioxa |
|------|----------|-----------|--------|----------|-----------|----------|-----------|------------------|----------------|-----------|-----------|-------------|---------|--------|---------|----------|---------|---------|
| 2015 | 3,2      | 3,1       | 2,7    | 3,1      | 3,2       | 2,8      | 2,5       | 2,9              | 3,2            | 3,3       | 3,6       | 3,0         | 3,1     | 3,4    | 3,1     | 2,9      | 3,1     | 2,8     |
| 2016 | 3,2      | 3,1       | 2,7    | 2,7      | 3,2       | 3,4      | 2,2       | 3,1              | 3,4            | 3,3       | 3,2       | 2,8         | 3,0     | 3,3    | 3,6     | 3,0      | 3,3     | 2,8     |
| 2017 | 2,3      | 2,7       | 3,0    | 1,9      | 2,0       | 2,0      | 2,2       | 2,1              | 2,6            | 1,9       | 2,2       | 2,8         | 2,5     | 2,6    | 2,2     | 2,6      | 2,5     | 2,1     |

2017an, Aragoi eta Kantabrian izan ezik, erkidego guztietan lortuko den hazkunde tasa 2016koa baino apalagoa izango da, espainiar hazkundearentzat erakunde nagusiek aurreikusi dituzten zenbatespenekin bat etorritik. Hain zuzen ere, Espainiarentzat aurreikusi duten gehikuntza tasa %2,3 da, 2016an jasotako emaitza baino bederatzi hamarren txikiagoa baita. Kasu horretan, hazkundearen muturrak Asturiasen eta Kataluniaren %1,9 eta Aragoiren %3,0 izango dira, eta batez bestekoaren gainetik zortzi erkidego kokatuko dira. EAE berriro egongo da talde horretan, BPGaren gehikuntza %2,5 izango delarik.

## BPGaren bilakaera. 2017. urtea

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: CEPREDE.

## EKONOMIA SENTIMENDUA


### Europar Batasuneko konfiantzak nabarmen egin du hoberantz

#### Ekonomia sentimendua Europar Batasunean





Europako Batzordeak osatzen duen ekonomia sentimenduen indizeak goranzko joera erakutsi zuen 2016ko amaieran eta azken urteetako balioen gainetik kokatu da. Zehatz-mehatz adierazita, Europar Batasunak, oro har, 109,1eko balioa jaso zuen abenduan, 2007ko urritik inoiz eskuratu duen altuena. Eurogunearen emaitza zertxobait apalagoa izan zen (107,8), baina hori ere goranzko norabidea erakutsi zuen 2016ko azken zatian. Europako herrialde nagusien artean, Alemaniak dauka adierazle altuena (109,6), beraren bost osagaietan emaitza onak lortuta. Beste aldetik, Frantziak atzean utzi zituen urtearen erdialdean erakutsi zituen zalantzak eta hobekuntza garbia izan zuen azken hilekoetan, 105,5ean kokatu arte, azken urteetako emaitzak nabarmen gaituz. Herrialde horretako ahultasuna eraikuntza dago oraindik.

#### Ekonomia sentimendua Alemanian





#### Ekonomia sentimendua Frantzian



**Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan**

Ezuste handienetako bat Erresuma Batuan eman zuen. Izan ere, 2014tik beheranzko joera erakusten zuen eta Europar Batasunetik irteteko erreferendumaren emaitzak joera hori areagotu zuen, baina urtearen bigarren erdian norabidea irauli zuen eta galdutakoaren zati bat berreskuratu zuen, abenduan 10-8,6ko balioa lortuta. Oraindik ere zalan-tzak hautematen dira kontsumitzaileen-gan eta txikizkako merkataritzan, nahiz eta datu horiek batez besteko historikoaren gainetik dauden.

Italian baikortasuna neurritsuagoa da eta bertako balioak positiboak (104,2) diren arren, urrun daude 2015eko bigarren erdialdean eta 2016ko lehenengoan lortutakoetatik. Sentimendu baikorrena txikizkako merkataritzan hautematen da, gainontzeko osagaiak 1990etik jasotako batez besteko historikoaren zertxobait gainetik kokatzen diren bitartean. Orobat, zerbitzuetan okertzeko joera nabaritzen da, datozen hilekoetan adierazlea beherantz bultza dezakeena.

**Ekonomia sentimendua Italian****Ekonomia sentimendua Espainian**

Espainiaren kasua, neurri batean, Italiaren antzekoa da, zeren eta aurreko epealdietan lortutako emaitzetatik urrun baitago orain. Hala eta guztiz ere, oraingo egoera (106,2) oso ona da oraindik. Hala industriak nola zerbitzuek batez besteko historikoaren oso gainetik daude kokatuta, baina eraikuntzak ezkortasun handia erakusten du. Kontsumitzaileen konfiantza oso handia da eta txikizkako merkataritza maximo historikotik hurbil dago.

## EAE-KO EKONOMIA

## Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

|                                  | 2014       | 2015       | 2015       |            | 2016       |            |            |
|----------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                  |            |            | III        | IV         | I          | II         | III        |
| <b>BPG</b>                       | <b>1,6</b> | <b>2,9</b> | <b>3,1</b> | <b>3,1</b> | <b>3,3</b> | <b>3,2</b> | <b>3,0</b> |
| Familien kontsumoa               | 2,2        | 3,1        | 3,1        | 2,9        | 3,3        | 3,4        | 3,1        |
| Administrazioaren kontsumoa      | 0,7        | 1,8        | 3,4        | 2,0        | 2,4        | 2,7        | 0,8        |
| Kapital eraketa gordina          | -0,5       | 2,8        | 2,8        | 2,8        | 3,4        | 3,7        | 3,1        |
| Barne eskaria                    | 1,4        | 2,8        | 3,1        | 2,7        | 3,1        | 3,3        | 2,7        |
| Esportazioak                     | 5,8        | 0,6        | -2,9       | 2,3        | 4,2        | 3,0        | 1,6        |
| Inportazioak                     | 5,3        | 0,6        | -2,8       | 1,6        | 3,9        | 3,2        | 1,3        |
| Lehen arloa                      | -19,8      | 13,4       | 13,1       | 24,3       | 11,6       | 2,8        | -0,7       |
| Industria                        | 2,0        | 3,9        | 4,5        | 4,9        | 4,8        | 2,4        | 2,9        |
| Eraikuntza                       | -1,7       | 0,5        | 0,2        | -0,2       | -0,3       | 2,7        | 1,9        |
| Zerbitzuak                       | 1,7        | 2,9        | 3,1        | 2,8        | 3,0        | 3,4        | 3,1        |
| Balio erantsi gordina            | 1,4        | 3,1        | 3,3        | 3,2        | 3,3        | 3,1        | 3,0        |
| Ekoizkinen gaineko zerga garbiak | 3,8        | 1,1        | 1,2        | 2,0        | 3,2        | 3,2        | 2,9        |

Iturria: Eustat.

## Aurreikuspenak. 2016ko azaroa

Urte arteko aldakuntza tasak

|                                  | 2016       | 2016       | 2017       |            |            |            | 2017        |
|----------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|-------------|
|                                  | IV         |            | I          | II         | III        | IV         |             |
| <b>BPG</b>                       | <b>2,8</b> | <b>3,0</b> | <b>2,4</b> | <b>2,2</b> | <b>2,2</b> | <b>2,4</b> | <b>2,3</b>  |
| Barneko azken kontsumoa          | 2,5        | <b>2,9</b> | 2,2        | 1,8        | 2,0        | 2,1        | <b>2,0</b>  |
| Familien kontsumoa               | 2,8        | <b>3,1</b> | 2,4        | 2,0        | 2,2        | 2,4        | <b>2,3</b>  |
| Administrazioaren kontsumoa      | 1,0        | <b>1,7</b> | 1,2        | 1,1        | 1,1        | 1,0        | <b>1,1</b>  |
| Kapital eraketa gordina          | 2,9        | <b>3,3</b> | 2,6        | 2,4        | 2,8        | 3,2        | <b>2,7</b>  |
| Barne eskariaren ekarpena        | 2,7        | <b>3,0</b> | 2,4        | 2,0        | 2,2        | 2,5        | <b>2,3</b>  |
| Kanpo eskariaren ekarpena        | 0,1        | <b>0,0</b> | 0,0        | 0,2        | 0,0        | -0,1       | <b>0,0</b>  |
| Lehen arloa                      | 4,3        | <b>4,5</b> | 0,1        | 2,0        | -4,1       | -6,2       | <b>-2,1</b> |
| Industria                        | 2,5        | <b>3,2</b> | 2,1        | 2,0        | 2,5        | 2,8        | <b>2,3</b>  |
| Eraikuntza                       | 1,5        | <b>1,5</b> | 1,2        | 1,2        | 1,8        | 2,3        | <b>1,6</b>  |
| Zerbitzuak                       | 2,9        | <b>3,1</b> | 2,6        | 2,4        | 2,3        | 2,3        | <b>2,4</b>  |
| Balio erantsi gordina            | 2,8        | <b>3,0</b> | 2,4        | 2,2        | 2,3        | 2,4        | <b>2,3</b>  |
| Ekoizkinen gaineko zerga garbiak | 2,7        | <b>3,0</b> | 2,2        | 2,0        | 2,0        | 2,1        | <b>2,1</b>  |
| Enplegua                         | 1,8        | <b>1,8</b> | 1,6        | 1,6        | 1,7        | 1,7        | <b>1,7</b>  |

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

## EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

|           | BPG  |      |                               | BPG  |      |
|-----------|------|------|-------------------------------|------|------|
|           | 2016 | 2017 |                               | 2016 | 2017 |
| CEPREDE   | 3,3  | 2,5  | Laboral kutxa                 | 3,0  | 2,3  |
| Funcas    | 3,3  | 2,2  | Hispalink (BEGren aldakuntza) | 3,0  | 2,2  |
| Confebask | 3,0  | 2,5  | BBVA                          | 2,7  | 2,4  |

Iturria: CEPREDE (2016ko abendua), BBVA (2016ko azaroa), Confebask (2016ko abendua), Laboral Kutxa (2016ko azaroa), Funcas (2016ko urria) eta Hispalink (2016ko azaroa).

## ESPAINIAKO EKONOMIA

### Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

|                                      | 2014       | 2015       | 2015       |            | 2016       |            |            |
|--------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                      |            |            | III        | IV         | I          | II         | III        |
| <b>BPG</b>                           | <b>1,4</b> | <b>3,2</b> | <b>3,4</b> | <b>3,6</b> | <b>3,4</b> | <b>3,4</b> | <b>3,2</b> |
| Kontsumo pribatua                    | 1,6        | 2,8        | 3,3        | 3,2        | 3,4        | 3,2        | 2,8        |
| Kontsumo publikoa                    | -0,3       | 2,0        | 2,3        | 2,7        | 2,0        | 0,8        | 1,4        |
| Kapital finkoaren eraketa gordina    | 3,8        | 6,0        | 6,7        | 6,4        | 4,8        | 3,6        | 3,1        |
| - Aktibo finko materialak            | 3,8        | 6,5        | 7,3        | 6,8        | 4,9        | 3,7        | 3,2        |
| - Eraikuntzan                        | 1,2        | 4,9        | 5,3        | 5,0        | 3,1        | 2,0        | 2,0        |
| - Ekipamendu ondasunetan             | 8,1        | 8,8        | 10,4       | 9,6        | 7,6        | 6,1        | 4,9        |
| - Jabetza intelektualaren produktuak | 3,5        | 3,6        | 3,3        | 4,0        | 4,2        | 3,5        | 2,6        |
| Nazio eskaria (ekarpena)             | 1,9        | 3,3        | 3,7        | 3,8        | 3,5        | 2,9        | 2,6        |
| Esportazioak                         | 4,2        | 4,9        | 4,9        | 5,0        | 4,1        | 6,4        | 2,8        |
| Inportazioak                         | 6,5        | 5,6        | 6,2        | 6,1        | 4,8        | 5,1        | 0,9        |

Iturria: INE.

### Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

|             | BPG  |      |                              | BPG        |            |
|-------------|------|------|------------------------------|------------|------------|
|             | 2016 | 2017 |                              | 2016       | 2017       |
| AFI         | 3,2  | 2,3  | Intermoney                   | 3,2        | 2,2        |
| BBVA        | 3,3  | 2,5  | Repsol                       | 3,2        | 2,6        |
| Bankia      | 3,2  | 2,5  | Santander                    | 3,1        | 2,2        |
| Caixa Bank  | 3,2  | 2,4  | Solchaga Recio & asociados   | 3,2        | 2,2        |
| Cemex       | 3,2  | 2,5  | <b>BATEZ BESTE</b>           | <b>3,2</b> | <b>2,4</b> |
| CEEM-URJC   | 3,2  | 2,3  | Gobernua (2016-12)           | 3,2        | 2,5        |
| CEPREDE-UAM | 3,1  | 2,1  | Espainiako Bankua (2016-09)  | 3,2        | 2,3        |
| CEOE        | 3,1  | 2,3  | Europar Batzordea. (2016-11) | 3,2        | 2,3        |
| FUNCAS      | 3,1  | 2,3  | NDF (2017-01)                | 3,2        | 2,3        |
| ICAE-UCM    | 3,2  | 2,5  | ELGE (2016-11)               | 3,2        | 2,3        |
| IEE         | 3,2  | 2,4  | The Economist (2017-01)      | 3,2        | 2,3        |
| IFL-UC3M    | 3,1  | 2,1  | Consensus Forecast (2017-01) | 3,2        | 2,4        |

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

## NAZIOARTEKO EKONOMIA

### Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

|                  | 2014 | 2015 | 2015 |     | 2016 |     |     |
|------------------|------|------|------|-----|------|-----|-----|
|                  |      |      | III  | IV  | I    | II  | III |
| AEB              | 2,4  | 2,6  | 2,2  | 1,9 | 1,6  | 1,3 | 1,7 |
| Txina            | 7,3  | 6,9  | 6,9  | 6,8 | 6,7  | 6,7 | 6,7 |
| Japonia          | 0,0  | 0,6  | 2,1  | 1,2 | 0,3  | 0,9 | 1,0 |
| Kanada           | 2,6  | 0,9  | 0,8  | 0,4 | 1,3  | 1,1 | 1,3 |
| Europar Batasuna | 1,5  | 2,2  | 2,1  | 2,1 | 1,9  | 1,9 | 1,9 |
| Eurogunea        | 1,1  | 2,0  | 1,9  | 2,0 | 1,7  | 1,7 | 1,7 |
| Alemania         | 1,6  | 1,7  | 1,7  | 1,3 | 1,8  | 1,7 | 1,7 |
| Frantzia         | 0,6  | 1,3  | 1,1  | 1,2 | 1,2  | 1,1 | 1,0 |
| Erresuma Batua   | 3,1  | 2,2  | 1,8  | 1,7 | 1,8  | 2,0 | 2,5 |
| Italia           | 0,1  | 0,7  | 0,6  | 0,9 | 1,0  | 0,8 | 1,0 |
| Herbehereak      | 1,4  | 2,0  | 1,9  | 1,1 | 1,2  | 1,9 | 2,5 |

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

### Consensus Forecast. 2017ko urtarrileko aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasa

|                  | BPG  |      | KPI  |      | LANGABEZIA TASA |      |
|------------------|------|------|------|------|-----------------|------|
|                  | 2017 | 2018 | 2017 | 2018 | 2017            | 2018 |
| AEB              | 2,3  | 2,3  | 2,4  | 2,3  | 4,6             | 4,5  |
| Japonia          | 1,1  | 0,9  | 0,6  | 0,9  | 2,9             | 2,8  |
| Kanada           | 2,0  | 2,0  | 2,0  | 2,0  | 6,8             | 6,7  |
| Europar Batasuna | 1,5  | 1,6  | 1,4  | 1,7  | —               | —    |
| Eurogunea        | 1,4  | 1,5  | 1,4  | 1,4  | 9,7             | 9,3  |
| Alemania         | 1,3  | 1,5  | 1,7  | 1,7  | 6,1             | 6,2  |
| Frantzia         | 1,3  | 1,4  | 1,2  | 1,4  | 9,5             | 9,3  |
| Erresuma Batua   | 1,4  | 1,4  | 2,5  | 2,6  | 5,2             | 5,4  |
| Italia           | 0,7  | 0,9  | 0,9  | 1,1  | 11,4            | 11,0 |
| Herbehereak      | 1,7  | 1,6  | 1,2  | 1,5  | —               | —    |

Iturria: Consensus Forecast.